



elkartea@feuse.org  
www.feuse.org

# Farmaberriri



## Zuzendaritza-batzorde berria

**G**ure elkartearen estatutuen arabera, joan den udazkenean Zuzendaritza-batzordearen berritze prozesua ireki genuen, orduan hiru urte betetzen baitziren hautatua izan zenetik.

Prozesua bukatuta, Itziar Fernabdez de Larinoa eta Ibon Moco-roa lankideek Zuzendaritza-batzordeko karguak betetzeko onespina eman dute.

Kide hauekin eta lehendik zeudenekin, 2007ko maiatzaren 21 ean, Donostian bildurik, Zuzendaritza-batzorde berria osatu zen eta guztion artean adostu ondoren, honela geratu da:

Lehendakari:	Pello Iturria
Lehendakariorde:	Maritere Omaetxebarria
Idazkari:	Unai Berasategi
Diruzain:	Ibon Moco-roa
Batzordekide:	Juan Carlos Aristorena
Batzordekide:	Itziar Fdez. de Larinoa
Batzordekide:	Sonia Saenz de Buruaga

Pellok farmazia du Iruñan, Mariterrek Gernikan, Unai Antsoainen, Ibonek Donostian eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialeko euskara lan-taldekoa da. Juan Carlos Arrasateko Aita Menni ospitaleko farmazia-buruua da. Itziar Etxabarri-Ibiñako Iturriotz farmaziako adjuntua da eta Arrate Jauregirekin lehenengo Feuse

saria irabazi zuena. Soniak Bilbon du farmazia eta Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialeko batzordekidea da, baita elkargo berako euskara lan-taldekoa eta prestakuntza koordinatzailea ere.

Ezer baino lehen, Zuzendaritza-batzordea utzi duten Aitziber Etxeberria eta M<sup>a</sup> Eugenia Sagardoy adiskideak aipatu behar. Aitziber hiru urte hauetan Elkarteko diruzaina izan da, Zarautzeko Zulaika farmazian egiten du lan eta idazlea ere bada. Oso idazle ona. M<sup>a</sup> Eugeniak, berriz, Etxalarren du farmazia eta azken sei urte hauetan elkarteko batzordekidea izan da. M<sup>a</sup> Eugenia urte hauetan guztietan aldizkari honen prestaketaz, argazkien aukeraketaz, aldizkaria itxuratzeaz arduratu da. Eskertzekoa da biok Elkarteari eskaini dizkieten ahailegin guztiak. Pozgarria da jakitea gurekin segitzen dutela. Adiskide jatorrak ditugu.

Lerro hauen bidez, Zuzendaritza Batzordeko kideok agurtzen zaituztegu. Saiatuko gara farmazia alorrean euskararen erabilera ahalbidetzen, bultzatzen eta indartzen eta gure lanbidearen izen onari eusten.





## XII. Batzar Orokorra Getarian egin genuen

2007ko apirilaren 1ean Getariako Alondiga Zaharrean egindako Batzar Orokorrean aterako argazkia.

Joan den apirilaren 1ean, igandean, 12etan, hogeita bost bat lagun bildurik, Getariako Alondiga Zaharrean, hasiera eman genion Feuseren XII. Batzar Orokorriari. Aurreko batzarraren akta (2006/04/02) irakurri eta onartu ondoren, 2006ko oroitza-txostenaren berri eman zen.

### 2006 oroitza-txostena

Zuzendaritza-batzordeak hiru bilera egin ditu 2006an: otsailean, maiatzean eta urrian.

Apirilaren 2an, Feuseren XI. Batzar Orokorra eta urteroko jai eguna Donostian egin genuen, Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialean. Batzarra bukatu ondoren, 2. Feuse saria Igor Horrillo Furundarena lankideari eman genion: hiru mila euro eta diploma. Jarrailan, Igo-  
rek saritutako lanari buruz hitz egin zigun: Depresio nagusia izeneko lanari buruz, hain zuzen.

Egun berean, Elkartearen webgunea

aurkeztu genuen eta hurrengo egunean bistan ipini [www.feuse.org](http://www.feuse.org) helbidean. Era berean, Elkartearen helbide elektronikoa aidatu genuen. Hauxe da berria: [elkartea@feuse.org](mailto:elkartea@feuse.org)

Udazkenean, Farmaberriren bidez (24. zenbakia) Feuseren farmaburuaren bigarren deialdia egin genuen. Era berean, udazkenean, gure aldizkariaren bidez (zenbaki berean), Batzorde Zuzendaria berritze prozesua ireki genuen, orduan betetzen baitziren hiru urte zuzendaritza taldea hautatua izan zenetik. Urtero legez, Feuseko hainbat kidek Euskal Herriko komunikabideetan parte hartu dugu farmaziari dagozkion gai desberdinez hitz egiten.

### Argitalpenak eta beste bidalketak

Azaroan, 2. Feuse saria irabazi zuen lana argitaratu genuen eta kide guztioi bidali. Igor Horrillo lankideak irabazi zuen Depresio nagusia lanarekin. Lanak Jose Antonio Loidi bilduma osatzen du.

Bosgarren zenbakia da. Euskal Herriko Farmazialarien Kontseiluak eta Laboratorios Cinfa S.A.k egindako diru-ekarpenari esker argitaratu da lana. Era berean, eskertzekoa da Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialak erakutsitako jarrera.

Farmaberri aldizkaria. Hiru zenbaki pres-tatu ditugu eta otsailean, ekainean eta urrian Feuseko kideoi bidali.

### Diruzaintzaren txostena

Elkartearen diruzaintzari buruzko datuak jakitera eman ziren: 2005ko balantzea eta 2005ko sarrera-irteerak, hain zuzen. Halaber, 2006. urterako aurrekontua eza-gutzera eman zen. Datu hauek guztiak kideen esku utzi ziren eta ontzat eman ziren. Elkartearen egoera ekonomikoa onbideraturik dago. Era berean, aurtengo kuota 30 eurokoa izatea onartu zen (Elkartea sortu zenetik kuota ez da aldatu).

## Egitasmo txostena

Batzar Orokorren egunean Elkar-teak 242 kide zituen: 12 Araban, 54 Bizkaian, 110 Gipuzkoan, 62 Nafarroan, 1 Lapurdin, 1 Nafarroa Berrean, 1 Burgosen eta 1 Malagan. Horietako 172 emakumezkoak ziren eta 70 gizezkoak.

### 1. BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA

Feusek, beste elkarte eta erakunderekin batera, Bai Euskarari Akordioa sinatu zuen 1999an eta Bai Euskarari Ziurtagiria lortu du sortu zenetik, 2000an, hain zuzen. Feuse Guk zerbitzua eta lana euskaraz mailan dago.

### 2. FEUSEREN WEBGUNEAK

Webguneak gure arteko harremanak erraztuko dizkigu. Farmazialari euskaltzale guztion topalekua izan nahi du. Era berean, gune horren bidez, Feuse aurkeztu nahi dugu sarean: elkartearen helburuak jakinarazi, farmazialari dagozkien berriak zabaldu, agenda, eztabaida lekuak, osasun arloko beste webgunerekiko estekadurak eratu...

### 3. FEUSE SARIA

Zuzendaritza-batzordearen asmoa da, aurten, 3. Feuse saria iragarzea. Zenbaki honetan dituzu argibideak.

### 4. KIDE BERRIAK EGIN

Guztiok salatu behar dugu farmazialari euskaltzaleak gureganatzen. Zenbat eta kide gehiago izan, orduan eta eder-rago, indartsuago gure elkar-tea.

Bukatzeko, batzarrean, elkar-tekide batek galdetu zuen beste kideekin harremanetan jartzeko aukerarik dagoen. Erantzuna hau: horretarako sortu dugu webgunea, gure arteko harremanak errazteko eta indartzeko. Elkartearen webgunea kideon kontsulta- eta hizketa- gunea izatea nahiko genuke, kideon informazio- eta dokumentazio-zentroa.



FEUSE saria Farmazialarekin zerikusia duen euskaraz idatzitako lanik hoberearentzat izango da

# FEUSE saria hirugarren deialdia

Euskaraz sortutako farmazia arloko testu teknikoan kopurua eta kalitatea gero eta handiagoak izaten laguntzeko asmoarekin Feuse saria sortu genuen 2003an. Zuzendaritza-batzordeak, bada, aurten 3. Feuse saria iragartzea erabaki du. Guztiok animatu nahi zaituztegu parte hartzera; ea aurreko bi deialdiak hobetzen ditugun. Saria ez da makala; 3.000 eurokoa alegia, baina zalantzarik gabe guztiok postuko gintuzkeena parte-hartze handia izatea ulzateke.

#### OINARRIAK

- Farmazialarekin zerikusia duen euskaraz idatzitako lanak onartuko dira.
- Lanak originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Horrela ez izateagatik sortu daitezkeen arazoan ardura egileena izango da eta FEUSEK ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik.
- Egileak bat edo gehiago izan daitezke, baina guztiak farmazialari edo farmazia fakultate bateko ikasle izan behar dute. Baldintza hau egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira.
- Irudiak, grafikoak, argazkiak edo bestelako eranskinek zenbakitunik eta testuarengandik berezirik aurkeztuko dira.
- Lana osatzen duen testu guztia fitxategi informatikoan aurkeztuko da eta aldi berean, ale bat DIN A4 formatuan inprimaturik aurkeztuko da.
- Lana prestatzeko erabilita-

ko bibliografia ere aurkeztu beharko da.

- Lanarekin batera gutun bat igorri beharko da, bertan lanaren izenburua eta egilearen edo egile taldearen izen goitia aipatuz. Gainera, kartazal itxi baten kanpoaldean ere lanaren izenburua eta izengoiti berbera jarriko dira eta kartazalaren barruan egilearen edo egileen izen-deiturak eta harremanetarako fitxa, eta helbide elektronikoa gordeko dira.
- Aurkezpen gutuna, inprimaturiko lana, euskari informatikoan gordetako bertsiotik eta egilearen edo egileen datuak gordetzen dituen kartazal itxia elkarrekin igorriko dira honako helbidera:

**Aita Menni Ospitalea**  
J. Carlos Aristorena jna.  
Farmazia Zerbitzua  
Gesalbar, 15  
20509 ARRASATE

- Lanak jasotzeko epea 2007ko urriaren 31 bitartekoa izango da.
- Partehartzaileak: Farmazialariak eta farmazia fakultateetako ikasleak
- Lanak aztertuko dituen epaimahaia FEUSEK izendatuko du. Epaimahaikideek ezin izango dute lanik aurkeztu deialdi honetan.
- Epala 2007ko abenduaren 31 baino lehen jakinaraziko zaio irabazleari.
- Saria 2008ko Feuseren Batzar Orokorren egunean emango da eta irabazleak saritutako lanaren azalpena egin beharko du egun berean.
- Epaimahaiaren erabakiaren aurkako helegiterik ez da onartuko.
- Sariaren kopurua 3.000 € izango da eta zatiezina da.



FEUSEren FARMABURUA

## Miren Eskarne Fuldain lankideari eman zitzaion

Getariako batzarra bukatuta, Miren Eskarne Fuldain Isasi-Isasmendi lankideari Feuseren Farmaburua eman genion. Aurteko zenbakian aipatu genituen Mirenen merezimendu batzuk. Miren euskaraz bizi da bere Getariako farmazian, euskara zaintzen du farmazian. Bere pazienteei eta lagunei zuzendutako hamaika osasun-barkel eta osasun-aholku euskaratu ditu eta, gero, agindako lana beste lankideei eskaini. Mirenek uste osoa du bere farmazian paziente eta lagun euskaldunekin euskaraz aritu behar dela, eta uste hori zintzoki betetzen du.

Bestalde, maisu-formulak egin ahal izateko ehun bat erabilera-orri prestatu ditu euskaraz, eta gero lan baliagarri hori lankideei eskaini. Miren oso lotua egon da Feuseri elkarrekin sortu zenetik. Elkarrean sortzailetako bat da. Eskerrik asko eta zorionak Miren.

### Ikerketa

## Jose Antonio Loidi ikerketa beka abian da

Aldizkari honekin batera bidaitzen dizugu Irungo Udaliak urte honetarako Jose Antonio Loidi ikerketa bekar buruz prestatuturikoa. Feuseko ohorezko lehendakari zenaren izena duen bekarren zortzigarren deialdia da (Jose Antonio orain dela zortzi urte hil zen). Ezaugarriak eta balditzak bertan irakur ditzakezu. Harreman eta informaziorako helbideak: Irungo Udala, Euskara Arloa, San Juan harria plaza 1, 20304 Irun. Helbide elektronikoa: euskara@irun.org Telefonoa: 943 649250. Webgunea: www.irun.org

Iaz, beka jaso zuen proiektua Aitzpea Leizaola Egañaren "Mugaren illura: Muga turismoa Irun-Bidasoaldean" izan zen.

## Donostiako Opera Prima Aitziber Etxeberriak irabazi du saria

Azken hiru urte hauetan gure elkarteko diruzaina izan den Aitziber Etxeberriak (Zarautz, 1973) irabazi du Donostia Opera Prima saria 31 baioneta nobelarengatik. Aitziberrek, gainera, 2003an sari bera jaso zuen Tango urdina nobelarengatik. Beraz, nahiz eta sariak Donostia Opera Prima izena izan, 31 baioneta ez da kasu honetan irabazlearen opera prima. Parte hartzeko oinarrietan, aurretik libururik argitaratu gabea izatea edo, bestela, 35 urte baino gutxiago izatea eskatzen da, eta horregatik parte hartu ahal izan du Aitziberrek.

Tango urdina eta 31 baioneta zeharo desberdinak dira egilearen iritziz. *Tango urdina* gaur egungo giroan kokatuta dago eta bizilagun batzuen arteko harremanak ditu kontagai, orainaldian eta lehen pertsonan. *31 baioneta*, aldiz, XIX. mendearen hasieran dago girotua, hirugarren pertsonako narratzailea du.

1813ko Donostian kokatzen du irakurlea, gerra garaian. Bi nobela jadanik salgai dituzu liburudendatan. Aitziberrek oraintxe utzi du elkarteko diruzain kargua baina gurekin segitzen du kide gisa. Zarautzeko Zulaika farmazian egiten du lan.



Zorionak Aitziber eta, etorkizunari begira, arrakasta izan dezazun. Bihotz-bihotzez.

### Udako Euskal Unibertsitatea

## Uda zure neurria

35 urte daramatza Udako Euskal Unibertsitateak ikastaroak eskaintzen, alegia, udaran goi mailako formazioa eta euskara uztartzeko aukera emanez. Aurten *Uda zure neurria* esaldia hartu du lelotzat. Beraz, egungo gizarteak dituen beharrak asetzeko pentsatuta daude aurten 30 ikastaroak, hain zuzen, Eibarren (12 ikastaro, uztailaren 2tik 13ra), Baionan (8 ikastaro, uztailaren 9tik 13ra), Iruñean (10 ikastaro, uztailaren 16tik 20ra) eta Lizarran (hiru hitzaldi, uztailaren 17, 18 eta 19) gauzatuko direnak.

Berrikuntzei dagokienez, Iruñean egoitza aldaketa izanen da, Larraona ikastetxean izatetik Hizkuntza Eskolara pasako baitira. Hizkuntza Eskola Iruñeko bihotzean dago eta bertako azpiegiturek UEUren beharrak asetzen dituzte. Baionan Bernat Etxepare lizeoan izanen dira eta Eibarren, berriz, UEUko egoitza nagusi Markeskoa Jauretzean. Udara honetan, halaber, Lizarran hitzaldi sorta bat eskainiko dute lehenbizikoz, bertako Udalaren laguntzaz (Fray Diego Kultur Etxean). Izan ere, lehen aldiz da Nafarroan ikastaroak Iruñetik ateratzen dituzteia. Informazio gehiago: [www.ueu.org](http://www.ueu.org)